Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

299

EBAZPENA, 2008ko irailaren 30ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendariarena, Julio Luís García García jaunak EB3-0497/05-EP (SD3-01481/05) espedientean jarritako gorako errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez, EB3-0497/05-EP espedientearen babesean, hasiera eman zitzaion Donostia-San Sebastiango udalerriko Zarautz Etorbideko 133. zenbakian 48 gizarte etxebizitza esleitzeko administrazio-prozedurari.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkariaren 2008ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez onetsi ziren prozedura horretan onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak. Zerrenda horietan Julio Luís García García jauna baztertuen zerrendan agertzen da udalerrian egoitza izatea egiaztatzen ez duelako.

3.– Julio Luís García García jaunak, ebazpen horrekin bat ez zetorrela-eta, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen 2008ko uztailaren 14an. Errekurritutako ebazpena berraztertzea eskatzen du.

Aurrekari horiek kontuan hartuta honakoak azaltzen dira:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu Zuzendaria da aztertzen den gorako errekurtsoa ebazteko organo eskuduna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren 373/2005 Dekretuan aurreikusitakoari jarraiki, eta errekurtsoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera jarri da.

2.– Honakoak dira erabili beharreko arauak: martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa; 2008ko apirilaren 16ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duena; eta 2008ko maiatzaren 12ko Agindua, Donostia-San Sebastiango udalerriko Zarautz

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

299

RESOLUCIÓN de 30 de septiembre de 2008, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por D. Julio Luís García García en el expediente EB3-0497/05-EP (SD3-01481/05).

ANTECEDENTES

1.– Al amparo del expediente EB3-0497/05-EP, se inició mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 12 de mayo de 2008, el procedimiento administrativo de adjudicación de 48 viviendas sociales en Avenida de Zarauz, 133, en el municipio de Donostia-San Sebastián.

2.– Mediante Resolución del Delegado Territorial en Gipuzkoa del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, con fecha 7 de julio de 2008, se aprobaron las listas de admitidas/os y de excluidas/os del procedimiento de referencia. En dichas listas D. Julio Luís García García figura excluido por no acreditar residencia en el municipio.

3.– Con fecha 14 de julio de 2008, D. Julio Luís García García interpone recurso de alzada contra la anterior Resolución, mostrando su disconformidad con la misma. Solicita la revisión de la resolución recurrida.

Sobre la base de estos Antecedentes, se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina de conformidad con lo establecido en el Decreto 373/2005 por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y el recurso ha sido interpuesto de acuerdo con lo previsto en la Ley 30/1992 de 26 de noviembre sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El régimen legal aplicable es el establecido en el Decreto 39/2008, sobre régimen jurídico de vivienda de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, la Orden de 16 de abril de 2008 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por el que se regula el procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial y la Orden de 12 de mayo de 2008, el procedimiento administrativo de adjudicación

etorbideko 133. zenbakian 48 gizarte etxebizitza esleitzeko administrazio-prozedurari hasiera ematen diona.

3.– 2008ko maiatzaren 12ko Aginduak bigarren xedapenean jasotzen du Donostia-San Sebastián izango dela espediente honetan interesa duen udala eta bederatzigarren xedapenak adierazten duenez, etorkizuneko titularretakoren batek erroldaturik egon beharko du interesatutzat deklaratutako edozein udalerritan, etxebizitzen esleipen-prozedurari hasiera ematen dion agindu hau argitaratzen den eguna baino urtebete lehenagoko antzinatasunez.

Aztergai dugun kasu honetan, espedientea azterturik ikusi da errekurtsoa jarri duen pertsonak ez duela betetzen erroldatze-baldintza, eta, hortaz, ebazpena Zuzenbidearen araberakoa da eta berretsi egin behar da.

Azaldutako oinarriak, aipatutako lege-xedapenak eta aplika daitezkeen bateragarriak eta osagarriak ikusita, hau

EBATZI DUT:

Sailak Gipuzkoan duen Lurralde Ordezkariak EB3-0497/05-EP espedientean hartutako ebazpenaren aurka Julio Luís García García jaunak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ezestea. Ebazpenak Donostia-San Sebastiángo udalerriko Zarautz Etorbideko 133. zenbakiko 48 gizarte-etxebizitzaren sustapenean onartu eta baztertutakoen zerrenda onesten du eta bere hartan berretsi behar da Zuzenbidearekin bat datorrelako.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, bere aurka administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke, Donostiako auzitegietako Administrazioarekiko Auzitarako Salan. Bi hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 30a.

Zerbitzu zuzendaria,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

de 48 viviendas sociales en Avenida de Zarauz, 133, en el municipio de Donostia-San Sebastián.

3.– El Dispongo Segundo de la Orden de 12 de mayo de 2008, establece como municipio interesado el de Donostia-San Sebastián, señalando en su Dispongo Noveno que alguno de los futuros titulares habrá de estar empadronado, con una antigüedad mínima de un año anterior a la fecha de publicación de la presente Orden de inicio, en cualquiera de los municipios interesados.

En el supuesto que nos ocupa examinado el expediente se comprueba que D. Julio Luís García García está empadronado en Errentería, por lo que no cumple el requisito de empadronamiento señalado, y la resolución es ajustada a Derecho y debe confirmarse.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones legales citadas y demás concordantes y de general aplicación

RESUELVO:

Desestimar el recurso de alzada interpuesto por D. Julio Luís García García contra Resolución del Delegado Territorial en Gipuzkoa de este Departamento recaída en el expediente EB3-0497/05-EP por la que se aprueba la lista de admitidos y excluidos en la promoción de 48 viviendas sociales en Avenida Zarauz, 133, en el municipio de Donostia-San Sebastián, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de los de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2008.

El Director de Servicios,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.